# Pil-Pilean

Euskera Elkartea

Soraluzeko Aldizkaria 2000ko apirila 23. alea

## *Jose Luis Nieto urrezko domina Azpeitian*



## *Ezoziko Ama Abesbatza*

*Silvia Hernandez zuzendariari elkarrizketa*




## San Andreseko parke berria

TOPAGUNEA

## *Pil-Pilean partaide berria*



## Karakateko aisialdi gunea

# GOI S.A. industriak



**Tornileria-estanpazioa eta extrusioa hotzean**



Tfnoa. 943-752100
FAX. 943-751712

20590 SORALUZE

ETXEKIT
COCINA Y BAÑO
Luis F. Beristain
Mobiliario cocinas y baño
Coordinación de gremios
Armarios empotrados
Puertas y suelos
Electrodomesticos
C/Arrillaga s/n. ELGOIBAR. Tlf: 943 74 43 47


ETXEKIT
COCINA Y BAÑO
Luis F. Beristain
Mobiliario cocinas y baño
Coordinación de gremios
Armarios empotrados
Puertas y suelos
Electrodomesticos
C/Arrillaga s/n. ELGOIBAR. Tlf: 943 74 43 47

ETXEKIT
COCINA Y BAÑO
Luis F. Beristain
Mobiliario cocinas y baño
Coordinación de gremios
Armarios empotrados
Puertas y suelos
Electrodomesticos
C/Arrillaga s/n. ELGOIBAR. Tlf: 943 74 43 47

ETXEKIT
COCINA Y BAÑO
Luis F. Beristain
Mobiliario cocinas y baño
Coordinación de gremios
Armarios empotrados
Puertas y suelos
Electrodomesticos
C/Arrillaga s/n. ELGOIBAR. Tlf: 943 74 43 47

## Kolaborazioa



### Eskuko telefonoak, zer dakigu beraitaz?

Egunon. "Mugitel" konpainiakoak gara eta zure lurretan edo teilatu gainean antena bat ipintzea nahiko genuke oso leku aproposa deritzogulako. Ez duzue arduratu behar mantenimenduagatik geuk egiten bait dugu guztia. Gainera, antena ipintzen uzteagatik, 25 urtetarako kontratu bat sinatuko dugu urte bakoitzean 700.000 pezetetako diru saria emango zaizuelarik. Nork egiten dio uko honelako maukari? Gutxi batzuk egia esan.

Teknologi berria da eskaintzen zaiguna, baina berrikuntza berri guztiak bezala gutxi aztertuak. Nork pentsatuko luke orain dela 30 urte zentral nuklearrek horrelako kalterik egin zezaketenik? Eman ziguten informazioan ez zen ezer txarrik agertzen, eta orain, nork nahiko luke bere etxe ondoan horrelako enpresa bat izatea? Urteen poderioz plazaratu dute beraien alderdi iluna.

Zer dakigu telefono mugikorrek sortzen dituzten uhinez? Ezer gutxi. Gure inguruan are gutxiago, baina herrialde aurreratuagoetan kezkatzen hasiak dira epe luzera ondorio batzu ikusten hasi direlako. Alemania, Estatu Batuak, Italia, Belgika, Australian egin diren ikerketa zientifikoek aditzera eman dutenez antena inguruetan egoteak eta telefono mugikorren erabilerak uhin elektromagnetikoak sor lezaketen kalteen artean, buruko minbizia, Alzheimer, kataratak,..... egon liratezkeela.

Hau kontuan izanik Osasun eta Kontsumo Ministeritzako Francisco Vargas jaunak aditzera eman zuen komisio bat sortu behar dela uhin elektromagnetikoek pertsonengan duten eragina aztertzeko. Bestalde Jose Luis Bardasano irakasleak, Alcala de Henares Unibertsitateko Medizina Fakultateko katedratikoak, azaldu zuen uhin elektromagnetikoen kutsadurak gizakiaren "erloju biologikoa" desoreka dezakela, hau da, loa nahastuz endokrino, nerbio eta psikiko sistemak nahas ditzakeela batzutan gainera minbiziak sortuz.

Seguru al gaude baserri inguruetan ipintzen ari diren antenekin? Ni ez nago ziur. Badaezpada ere ez nieke baimenik emango pertsonen inguruan ezartzeari.

***Mari Karmen Larrañaga Larrañaga***
*N.A.N.: 15.362.708*

## Editoriala

Aste Santuko bakaziñuak zetozela eta komentatzen gendela, lenagoko baten nun enterau nintzan, azkenengo urtiotan zein dan kanpora eguzki bila urtetzen daben jente gaztian gustoko lekuetako bat: Benidorm! Beti jubilauekin eta honen biajiekin lotu izan dogun lekua. Itxura danez, demaseko anbientia egoten ei da gabetan... (eta han be ez dau gabez iletargixak urtetzen hamengo moduaniua hala!!!). Batek gainera, grazia egin zostan; itxuria *"La calle del coño"* ezagutu nahi ei zeban eta kale hori zein zan preguntatziakin bat bota zeban harek: "Insersuakin juandako eibartar jubilau danak juntatzen diran txikiteo kalia dok !"- eta batak bestiari- *'Koño!!! Hi be hamen!'* esaten jotsek elkarri. Sekula ez gaittuk ezer barririk ikasi barik ohera juaten...

Baina, hau sekulako hilabete aldrebesa urten jaku! Martxuan udia eduki eta gero, oin itxuria, negua etorri jaku berriro... (2000 efektuaren ondarrak igual?). Dana dala, mendira eta edur artera juatia gustatzen jakuenak euren agostua egin ahal izan dabe aurtengo Aste Santuan (edo abrila ete?).

Bueno, dana dala, bakaziñuak bakaziño, Pil-Pileanen beti esaten doguna bete baldin badozue, gauzia ez da hain geizki juan: "Ondo pasau, asko ligau, gutxi gastau... eta bueltak amari!".

**Telegrapak:** Itxura denez satorren bat dabil gure herriko kaleetan (Santa Ana kalean jotzen du gehien), harrapetzen duenak 2 pertsonarendako afaria irabaziko du nahi duen Soraluzeko jatetxean! **STOP**. Ez da gogaikarria izatearren, baina Gila zubiko autobusaren informazio makiltxo laranjak ordutegien orri gabe jarraitzen du, eta gainera zatika erortzen ari da! **STOP**. Zurrumurrua besterik izan ez arren, agian, Gabolatz kaleko jendeak adokinei agur esango die obrak amaitu eta gero. **STOP**. Formalak izan eta hurrengo alerarte!


**Pil Pilean**

**Argitaratzailea:** *Pil Pilean Kultura Elkartea.*

**Lan taldea:** *Egoitz Unamuno, Inaki Alberdi, Eduardo Pombar, Gurutze Ariznabarreta, Amaia Agirre, Aitziber Gantxegi, Jose Ramon Gomez, Elene Alberdi, Ubane Madera,Oier Oregi ,Gorka Prieto, Aitor Madrid, Xuban Katalan. eta Sabin Mendizabal.* **Publizitatea:** *Inaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.)* **Banaketa:** *Pil Pilean.* **Tirada:** *1700 ale.* **Inprimategia:** *Gertu Koop.* **Helbidea** *Frontoi kalea 5. behea, PK 27 20590 Soraluze, telefonoa 943 75 13 04*



**Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.**





# *Zer diskriminazio eta zer kristo !*

Joan zen egun baten enteratu nintzen Soraluzeko PP-ko zinegotziak, Udalak, etxez-etxe ibiliko diren 5 langileen kontratazioan euskeraz "elkarrizketa arrunt bat" eramateko ahalmena erakusten dutenek "plus" bat izatearen erabakiaren kontra esan dituen astakeriez. Ezin dut ulertu. Zela da posible oraindik halako gauzak esaten ibiltzea ? Ezin daiteke imaginatu ere egin, horrelako adierazpen gaiztoek, euskararen normalizazio bideari egiten dioten kaltea zein haundia den.

Euskaldunok ez al dugu eskubiderik euskarazko zerbitzurik izateko? Guk badakizkigu ba bi hizkuntzak, BI HIZKUNTZA OFIZIALAK ! Zein da hemen diskriminatzen diarduena, bi hizkuntzak dakizkiena hala bakarra dakiena ?

Ez al da beharrezkoa eta zentzuzkoa % 50 etik gora euskaldunak ( bi hizkuntzak dakizkitenak) diren herri baten, ezer baino gehiago komunikazio lana izango den LAN PUBLIKO baten eta EUSKARA ETA GAZTELERA OFIZIALAK diren Herrian, elebidunei ( bi hizkuntzak ikasteko errespetua izan eta ahalegina egin dutenei) ahalegin hori saritu eta lehentasuna ematea. Zinegotzi jauna, gogorarazten dizut ez gaudela Kastillan, Diktadura amaitu zela, Euskera ofiziala dela (oraindik behintzat) eta herri honetan bi hizkuntzak ikasten ez dituenak, (salbuespen urriak salbuespen) berak nahi ez duelako ez dituela ikasten eta zorionez bagaudela beste asko(bai erdaldun eta bai euskaldun), ahaleginez, gogoz eta besteenganako errespetuz, biak ikasten ditugunak!

Zer gertatuko ote litzake alderantziz balitz (euskaldun hutsak bagina eta erderaz ikasterik nahi ez bagendu) ? Jangoikoak eta euskaldunok bakarrik dakigu hori !

Ze kristo, orduan bihar bertan joango naiz bankura eta neu egingo naiz bertako zuzendari nagusi. Zertatarako oposizioak ? Zertarako Kurrikuluma ? Zer axola dio noberak ikasteko egin dituen ahaleginak?Nik baino gehiago dakien batek, zela izango du ba postua hartzeko aukera gehiago ? Tira, tira, pentsatzea ere, eh Don Javier ?

Alperrik denarekin alperrik da eta kitto ! Baina negar malkoak ateratzen zaizkit begietatik, horrelako astakeriak esanda, hainbeste jende jatorren elkarbizitzarako ahaleginak suntsitzen dituztenean! Aurrera eta eutsi goiari !

Gizurren bat esan badut, egiak ito nazala!

*Egoitz Unamuno Loidik (eta seguraski beste euskaldun askok)*

## Oharra

Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta bere datu pertsonalak agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pilean**ek horretarako eskubidea izango du.




Zuen hildakoen eskela, eskerrona edo urteurrena jarri nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Pil Pileanen.
943 75 13 04

Etxabe harategia
Euskal txahalkia - Bildotsa
Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

ARRANO-TABERNA
SORALUZE

MARTXA eta BORROKA

Benito Anaiak Altzariak
Santa Ana 26 tfnoa: 943752047

ATXOLIN TABERNA
Pintxo bereziak, hotzak eta beroak
Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 943752131
SORALUZE

# Zer iruditzen jatzu elkartutako bikotien erregistrua gure udalian sortzia?



**Bixente Bakerizo**
**75 urte**
**Jubilatua**

Txarto. Hori nahi bada andriakin ezkontzeko edo bestela jartzeko hontxe daren moduan. Elizatik edo juzgautik, baina ezkondu bare bikote bat elkarrekin bizitzia ez jata ondo iruditzen.

Zoragarria iruditzen zait, nonbaiten egon beharko gara. Ez bagara ezkontzen ez ditugu eskubide batzuk eta bikote bezala ez gara inon agertzen. Eta horrela behintzat nonbaiten agertuko gara.



**Vanesa Plata**
**23 urte**
**Garbitzailea**



**Margarita Ibargoien**
**41 urte**
**Erligio irakaslea**

Ondo iruditzen jata, onerako baldin bada. Gauzak ondo eginda ondo egoten dira. Zeozer pasauta be eskubidiak edukitzeko.

Neri ondo irizten jata, tendenzia hori da eta hemen ez dago beste gauzarik. Hortaraxe doiaz parejak eta hemen gizartiak ze markatzen daben, ba hauraxe zertu biharko dogu. Eskubide batzuk edukitzeko zeozer bihar da.



**Gabino Sanz**
**65 urte**
**Jubilatua**



**Mª Jesus Laskurain**
**57 urte**
**Etxekoandrea**

Ondo pentsatzen jata. Nahiz eta ezkonduta ez egon agiri bat edukitzia ondo iruditzen jata, eskubidiak izan deixezen. Herrixan bertan, jende asko dago ezkondu bare elkarrekin bizi eta honek nunbaitten apuntauta egon biharko dabe.

Oso ideia ona iruditzen zait. Ezkontza, gizarte honetan sustraitua dagoen bezala beste alternatiba batzuk ere egon behar direla uste dut. Jendeak beste era batera elkartzea nahi badu eskubide osoa du eta ez dauka zertan izan ezkontza bezalako instituzio batean sartuta. Eskubide berdinak eduki beharko lituzketela uste dut.



**Alberto Hernandez**
**31 urte.**
**Funtzionarixua**




JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TFNOA: 943751190
SORALUZE

# *Karakateko aisialdi gunia*

Gure udalak, Karakate aldeko lursail zabal bat erosi du. Lur eremu horretan bertakuak diren arbola mota ezberdinak landatu dittu. Ekintza honekin mendigaineko gune horri, sasoi batean gure mendiek zuten antzeko itsuria ematia bilatzen da.

*Aitorrena*

Gure mendietako magalak pinuz josiak dauden garai honetan zaila da aspaldian mendia estaltzen zuten jatorrizko zuhaitzak ikustea. Kaletik mendi aldera begiratzea besterik ez dago horretaz konturatzeko. Urrun gelditu dira urkiz, pagoz, eta haritzez jantzita zeuden basoen garaiak. Gaur egunean etekin hobea ematen duten arbolak jan diete lekua ( pinu insignisa dugu horren adibide nagusiena ) urte askotan gure arbasoen artean bizi izan ziren arbolei.



*Mendiganeko ikuspegi orokorra*

Hemengo arbolak mendian berriz tokia eduki dezaten, udaleko ingurugiro batzordean, Karakateko aldea herritar denon artean ezaguna eta gustokoa den tokia dela ikusita, lur eremu zabal bat erostea adostu zen arbola autoktonoez erreforestatzeko. Helburua lortzeko 21.000m2-ko hedadura duten lurrak erosi zituen eta gehienbat pagoak landatu badira ere beste motatakoak ere ipini dira, urkia eta haritza eta pagua kasu. Hara gerturatzen denak, bertako arbolekin batera pinuak ikusiko ditu landatuta, hauek beste arbolak baino lenago hazten direnez, zuhaitz autoktonoak babesteko ipini dira, haizeak gogor jotzen du paraje horretan eta. Etorkizunean, hemengo arbolak handitzen direnean, moztuko dituzte pinuak. Parke honek jatorduak egiteko mahairik ez du izango, ezta barbakoak edo antzerako gauzak egiteko labe edo antzekorik ere. Horren bila dabilenak jai dauka beraz. Baina aurreikusita dago herri alderuntz begira, bankoak ipintziea, handik dagoen ikuspegiaz gozatzeko. Aurrerantzean udaleko arduradunek ez dute baztertzen beste lursailen bat ere erostea, Karakate aldean egin dena errepikatzeko.

*Parke honek jatorduak egiteko mahairik ez du izango*

Lursail honen egoera legala ez da aldatu. Hau da, ez du erreserba natural batek daukan tratamendu legalik ez antzekorik, hala ere, udaleko arau subzidiarioetan gune horretan eraikuntzarik ezin izango dela egin jasotzen da. Hor eraikuntzaren bat egitea beharrezkoa ikusten bada, eta Eusko Jaurlaritzak horrela eritziko balio, egiteko ahalmena izango luke bere eskutan duen ezkuduntza ( konpetentzia ) dalako.

**Egitea nahi diren beste lan batzuk**

Karakateko alde horretan jarraituz, jakina denez, gaur egunean bi antena daude, bata telekomunikazioetarako errealdoi hori, eta bestea telebistarakoa, zaharragoa dena. Udalak azken hau kentzeko tramiteak hasi ditu eta harek lagako duen tokian monolito bat jartzeko nahia agertu du. Monolito horretan leku horretatik ikusi daitezkeen mendien grabatua edo azalpen antzerakoa agertuko litzateke mendien izen eta guzti jakina.

Beste alde batetik, Manditturri eta Azkabeittiko iturriak zaharberritzeko lanak egitea ere nahi du udalak. Konponketa hauek ganoraz egiteko asmoarekin herriko mendi taldearekin harremanetan jarri dira, hauek txosten bat egin dezaten lanak hasi aurretik.

IRATXO
GOXOTEGIA
EGUNKARIAK GOIZEAN GOIZ.
Etxaburueta, 4
Tlfnoa: 943751320/1464

LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK
IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK
ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
SANTA ANA 22
TEL: 943753059
20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)

# San Andreseko parkea

San Andresen egiten diarduten aisialdi guneko obrak aurrera doaz. Parkeak, aisialdirako hornitua egongo da, mahaiak eta bankoak izango ditu, eta frontoi txiki bat ere bai.

***Aitorrena***

**P**arkearen bultzatzailea DEBEMEN ( Deba Barreneko Mendi Nekazaritza ) da, nekazal munduan lana egiten dutenei laguntza eskaintzen diete ( basoak garbittuz, herrietako azokak antolatuz...). Erakunde honek San Andres auzoan jende gaztea bizi dela ikusita, auzoa parke batez hornitzea proposatu zuen, bertako gaztedia eta hain gazteak ez direnei aisialdia bertan pasatzeko aukera emateko asmoarekin. Proiektoa udalera heldu zenean, berau bultzatzea adostu zen, egitasmoak zeuzkan eta dauzkan onurengatik.

Lehen aipatu bezala, banko eta mahaiak ipiniko dituzte, baita bolatoki berri bat ere, lanekin zaharra kendu behar izan dute eta. Frontoi bat egitea ere proiektatuta dago, neurri txikietakoa izango da, alde batetik estetika kontuengaitik, pilota araudiak esaten duen erakoa egitea gaizki gelditukoa , eta beste alde batetik, egileen denporapasarako pilotalekua egitea delako. Aurrerago ez da baztertzen frontoia estaltzea.




*San Andresgo parkearen egurrezko barandaua egina dago dagoeneko*

Lanok udaleko nekazal batzordetik **Pil-Pilean**eri jakin arazi diotenez, uztailaren hasierarako amaituta egotea nahi dira. Auzuko jaixak ondo ospatzeko.

# Akats Aitorpena

**Pil-Pilean**-en azkenengo zenbakian argitaratu genituen herrian atera ziren Espainiako hauteskundeen emaitzak ez ziren zuzenak izan. Hanka sartze hau ikusita, emaitzak berriz argitaratzea erabaki dugu, oraingo honetan zuzenduta eta oso osorik. 1996. urtean jaso ziren emaitzak ere hemen dituzue, konparatu ditzazuten.

| | **1996** | **2000** | |
|---|---|---|---|
| **Errolda:** | 3.787 persona | 3.696 persona | |
| Botoemaleak guztira: | (*) | 2.126 botoemaile | %57,52 |
| Abstentzioa: | (*) | 1.570 persona | %42,48 |
| EAJ-PNV | 758 boto | 761 boto | %36 |
| PP | 344 boto | 533 boto | %25,2 |
| PSE-EE/PSOE | 571 boto | 451 boto | %21,3 |
| EA | 319 boto | 249 boto | %11,7 |
| IU-EB | 105 boto | 53 boto | %2,5 |
| EH | 536 boto | (ez zuen parte hartu) | |
| Zuriak | (*) | 47 boto | %2,21 |
| Baliogabeak | (*) | 14 boto | %0,66 |

(*) : Ez dago daturik

**Iturria** : Barne Ministeritza




TXOKO
KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

# Sagar-erreka

*Egoitz Unamuno*

## *Eraberritua eta edertua ere bai*



*Lanak amaitu ostean beste itxura bat dauka Sagar Errekarako sarrerak*

**U**dan hasi ziren Sagar Errekako errekatxoaren bideratze lanak eta ordutik hona, errepidearen eta argiztatzearen egoera eskasa zela eta , benetan itxura negargarria izan du auzo hontarako eta bereziki herrirako den sarrerak. 125 milioiko kostua izan duten lan hauek, Foru Diputazioaren 100 milioko eta Udalaren 25 milioiko laguntzarekin burutu dira. Zorionez, dagoeneko erabat amaituta daude lanak eta herrirako eta Sagar Errekarako sarbidea den bidezati garrantzitsu horrek, lehen baino askoz itxura hobea erakusten du orain.

## Tunelak aurrera darrai

**Eibar-Gasteiz autobidea dela eta, Sagar Errekako mendi magalean egiten diarduten tunela mendian barrura doa poliki-poliki. Makina zulatzaileek ateratzen dituzten lurrak, kamioietan eramaten dituzte, batzuk, bertan dagoen eskonbreran pilatuz eta beste batzuk, kanpora bidaliz.**



**Mendi magalean egiten diarduten zuloa gero eta handiagoa da**

## *Udaberriko kontzertua musika eskolaren eskutik*



**Jende asko hurbildu zen elizara eta musikari gazteek beren abilidade eta egin dituzten aurrerapenak pozik erakutsi zituzten**

**U**rtero moduan, aurten ere Udaberriko Kontzertua antolatu du Soraluzeko Musika Eskolak. Kontzertua elizan eskeini zen martxoaren 31an, arratsaldeko 7 etan. Musika Eskolako ikasleek, hainbat eta hainbat melodia jo zituzten ordu bete pasatxo iraun zuen saio-an zehar eta bertaratu zen jendeak oso gustora entzun zituen den denak. *E. U.*

## *24 orduko bideo klub berria Plaza Zaharrean*



**Kartelak iragartzen duen moduan laster zabalduko dira bideo-klub berriaren ateak**

**J**oan zen apirilaren 3 an egin zen Udaleko Gobernu Batzordeak baimena eman eta gero, laster jarriko da martxan "bideoklub-bideomatik"-a Gabolatz kaleko 3. atariko barrenengo pisuan. Bideo denda honek daukan berezitasunetako bat, egunaren 24 orduetan bideoak alokatzeko aukera ematen duen aurrezki-kutxetako diruzainen antzeko makinaduna dela da. *E. U.*

# ***Pil-Pilean*** *euskal elkarte eta herri komunikabideen topaguneko kide berri*

*Egoitz Unamuno*

Joan den apirilaren 7an Euskara Elkarte eta Herri Komunikabideen Topaguneak Durangoko Piñondo Kultur Etxean egin zuen 2.000. urteko Batzar Nagusian, gure herriko **Pil Pilean Kultura Elkartea** Topaguneko kide eta bazkide berri moduan onartua izan zen. Bere baitan 40 euskara elkarte eta 35 herri aldizkari baino gehiago biltzen dituen Euskal Herri mailako elkarte honek, 30 milioi baino gehiagoko aurrekontuarekin, bera osatzen duten kideen arteko koordinazioa sendotu eta kulturgintzaren, gazteriaren, euskaldunberrien eta komunikabideen inguruko lan arloak garatu eta ekimenak burutzea du helburu. Zuzendaritza batzorde berriarekin batera aukeratu zen Jose Mari Mujikak ( Arrasateko A.E.D. elkarteko kidea ) adierazi zuenez, gogor eta sendo jarraitu behar da euskara normalizatzeko ahaleginean eta errebindikazioak egitea beharrezkoa bada ere, jendeari euskarazko zerbitzuak eskaintzea are garrantzitsuagoa da.




*Aurreko Zuzendaritza Batzordeak 1.999 .urteko balantzea eta 2.000 .urterako aurrikusita dagoen lan egitasmoaren berri eman zuten*

# *Euskalkien etorkizuna bermatzeko batzarra egin zen Eibarren*

*Egoitz Unamuno*

Joan den apirilaren 4 an, Eibarko euskalzale ezagun batzuek batzarra egiteko bidalitako gonbidapenei erantzunez, Antzuola , Mutriku, Bergara, Ermua, Elgeta, Soraluze eta beste zenbait herritako 18 ordezkari bildu ziren Eibarko Udaleko Portalea kultura-etxean. Batzarraren helburuak, Deba Ibarreko herririk gehienetan herri-euskara jasotzeko eta biziberritzeko egiten ari diren ahaleginak uztartu eta guztien artean aurrera aterako den lan ildo edo plangintza bat osatzea ziren (edo horretarako lehen bidea egiten hastea behintzat). Elkar ezagutu, herri bakoitzeko egoera aztertu eta proposamen batzuk entzun eta gero, teoria eta hitz hutsetan gelditu gabe, hori dena berehala praktikan jartzeko beharra azpimarratu zuten batzarkideek, eta honenbestez, ortografia edo idaztarauen gaia landuko duen batzorde bat eta aurrerantzean burutu beharreko ekimen plana zein izango den zehaztuko duen beste batzorde bat osatzea erabaki zen. Batzarrean aipatu zenez, lehenago ere egin izan omen dira antzeko batzarren batzuk, baina ez omen dute batzar honetan izan duen besteko erantzun zabalik eta eritzi adostasunik izaterik lortu. Bestalde, Euskaltzaindiako Jagon Sailak euskalkien gaia lantzeko egitasmoa martxan jartzeak dakarren "giro" aldaketa ere aipatu zen. Hori guztia kontuan hartuta, batzarkideek batzarraren amaieran gogoeta positiboa egin zuten hartutako erabakien gainean eta ekimen honek etorkizunean Euskal Herri osoko euskalkien biziraute eta suspertze lanean, eredu zein pizgarri moduan, izan dezakeen garrantzia ere azpimarratu zuten. Hurrengo bilera, maiatzaren 9 an arratsaldeko 18:30 etan, Eibarko Portalean egiteko erabakia ere hartu zuten azkenik.

*Adi!! Udalak eta **Pil-Pilean**ek kultur emanaldiak antolatu dituzte hamabostero. Animatu eta partehartu.* **Ikusi 14. orrialdea**

ITUR Iturgintza

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa ana 20 Tlfnoa: 943751241

Soraluze

ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO ETA KONPONETAK, ETXEKOAK ZEIN INDUSTRIALAK. ATEZAIN AUTOMATIKOAK. BERO AKUMULAGAILUAK GAU TARIFARAKO.

GANTXEGI
ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 104 p.k. Telf: 943751959 Soraluze

# Gobernu bartzordeak

### 2000-ko apirilaren 3-an egindako ohiko saioa

Beste batzuen artean honako erabaki hauek hartu ziren.

·DIRULAGUNTZAK: Euskara Batzorde Informatzailearen proposamanez 750.000 pezetako dirulaguntza ematea "Pil-Pilean" i, 2.000. urterako (%60 orain eta gainontzekoa balantzea aurkeztu eta gero).

·Osasun eta Gizarte Ongizate Batzorde Infomatzailearen proposamenez:

1) Panamako El Chorrillo-ko " Nuestra Señora de Fatima" parrokiari hozkailua erosteko, 400.000 pezetako dirulaguntza ematea Soraluzeko "Manos Comprometidas" izeneko lantaldeari.

2) Mozambique berreraikitzen laguntzeko, 300.000 pezetako dirulaguntza ematea "EUDEL" Euskadiko Udalen Elkarteari.

3) Igande eta jai egunetan ere, herrian erizaintza serbitzua izan dadin eskaera igortzea, Osak detzaren Eskualdeko Gerentziari eta Lurralde Zuzendaritzari.

·BAIMENAK: Gabolatz kaleko 3-behe zenbakian " bideoklub-bideomatik"a irekitzeko baimena Amaia Albisuari.

·Datorren maiatzaren 13 an eta 14 an, herrian urtero burutu ohi duen diru-biltzea egiteko baimena ematea "DYA" ri.

### 2000-ko martxoaren 27-an egindako ohiko saioa

Hauek dira hartu ziren erabakiak beste askoren artean:

·Hirigintza Baimena: Jokin Mitxelena Jn.ri, "Santa Maria La Real" Parrokiako teilatuaren alde bat eraberritzeko.

·Kultura eta Gazteria Batzorde Informatzailearen proposamenez, hurrengo dirulaguntza hauek ematea ondorengo elkarteei:

-"Ezoziko Ama Abesbatza" ri 450.000 (%60=270.000 pezta), "Urrats Dantza Taldea"ri 110.000 (%60=66.000), "Euskal Jaia"ri 281.000 (%60=168.600) pezta, "Kontrargi" ri 225.000 (%60=135.000) pezta, "Beti-Prest" i 783.334 (%60=470.000) pezta (gainerako %40 a urteko balantzea eta txostena aurkeztu ondoren ordainduko zaielarik).

·Gasteiz-Eibar noranzkoan, egokitzeko proiektua (7-1-93/96)" gauzatzeko beharrezko gastua egiteko baimena ematea erabaki da, 147.943.486 pezetako gastua hain zuzen ere.

·Lan eskeintza: Etxez-etxeko bost laguntzaile kontratatzeko, lan eskatzaileen zerrenda eskatzea INEMi, euskara elkarrizketa mailan erabiltzeko gauza badira hobe eta horietako batek B motako karnetduna behar du izan.

### 2000-ko martxoaren 20-an egindako ohiko saioa

Beste batzuren artean honako erabakiak hartu ziren:

·Osasun eta Gizarte Ongizate Batzordearen proposamenez:

1) 248.025 pezeta ordaintzea "Lahar"i, familien esku-hartze zerbitzuagatik luzatutako fakturen %75 a.

2)Aurtengo dirulaguntzak: Gizakia Helbururi 130.000 pezta,DYAri, 85.000 pezta,Odol Emaileei, 80.000 pezt, Emakume Mastektomizatuei 55.000 pezta, Gaixoen Laguntzarako Bolondresei 30.000 pezta, Atxegiri 80.000 pezta, Itxaropena Jubilatuen Etxeari 650.000 pezta.

·Hezkuntza Batzorde Informatzailearen proposamenez:

1)Aurtengo dirulaguntzak:"Uni Kultur Elkartea"ri Debabarreneko Eskola Antzerkiaren 16. ediziorako 71.531 pezta, "Baikara" ri 61.680 pezta Euskal Eskola Publikoaren Jaialdirako, "Plaentxi Herri Ikastetxea" ri 154.200 pezta, "Soraluzeko Institutua" ri 107.940 pezta, "Helduen Heziketa Iraunkorrari" Tailerrak antolatzeko (Markoak,Potzelana errusiarra, Bolilloak) 180.000 pezta, antolatzeko, Ludotekari 460.000 (%60=276.000) pezta, " Zubia" Antzerki Taldeari 300.000 (%60=180.000) pezta, "Bertso Eskola" ri 152.000 (%60=91.200) pezta.

*Egoitz Unamuno*

## PP-ko zinegotziaren arabera erdaldunenganako diskriminazioa egiten da udalean

*Egoitz Unamuno*

Soraluzeko Udaleko Aderdi Popularreko zinegotziak berriki esan duenez, Udal Korporazioak udaleko langilegoaren kontratazioan etengabeko diskriminazioa egiten omen diardu. Zinegotzi honen ustetan, Udalak etxez-etxe lanean jardungo duten 5 pertsonen kontratazioa egiteko daraman bidean ere diskriminatu egiten ditu euskaraz ez dakitenak, bere hitzetan "euskaraz ez dakienak ez bait daukate inongo aukerarik" lanpostu horiek lortzeko. Bere eritziz "Udaletik euskara bultzatu nahi bada eta hizkuntza oztopo izan ez dadin nahi badute" ez da hau jarraitu beharreko bidea eta Alderdi Popularrak euskara promozionatu nahi badu ere, ez dator bat euskaraz ez dakitenak diskriminatzearekin. Azkenik horrelako ekintzek, alkateari, herritar guztion alkatea den edo herritar batzuena bakarrik den galdetzera bultzatzen gaitu. (Hasierako orrietan gutun bat dator adierazpen hauei erantzunez eta Udalak 5 pertsona horien kontratazioan egin dituen eskarien inguruko berriak Udal Kontun dauzkazue.)

MENDIZABAL OKINDEGIA

Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091
Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399

Kontulan Aholkularitza, S.L.
Santa Ana, 13 1.ezk.
Tlfnoa: 943751782
20590 Soraluze

# ...eta kitto!, Drogetenitturri, Goibekokale eta Pil-Pilean aldizkarien

# AUTOEN GEHIGARRIA

Autoak aukeran

Honakoa da Eibar, Elgeta, Ermua eta Soraluzeko aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun bigarren eskuko AUTOEN GEHIGARRIA.

11.100 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia. 2000ko apirila

Publizista: *Mertxe Agirre.* Diseinua eta maketazioa: *Koldo Mitxelena Zumaran.*
Tirada: 11.100 ale. Tel. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 67 76

## SEAT EIBAR MOTOR. Otaola 17
## EIBAR Tel. 943 20 30 93 / 943 12 18 00

| MODELOA | MATRIKULA | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| CITROEN AX | M-IK | 1988 | | 400.000 |
| FIAT TIPO Diesel | BI-AY | 1989 | J/E; I/Z; L/D | 500.000 |
| FORD SIERRA | BI-AX | 1989 | | 300.000 |
| OPEL ASTRA GLS 1.6 | SS-AV | 1995 | J/E; I/Z; LD | 1.050.000 |
| OPEL VECTRA 2.0 | BI-BC | 1991 | J/E; I/Z; L/D | 600.000 |
| OPEL KADETT 1.8 | SS-AL | 1991 | | 600.000 |
| PEUGEOT 405 GL | BI-BH | 1991 | | 400.000 |
| RENAULT 21 GTS | SS-AM | 1992 | J/E; I/Z; L/D; Klimatizadorea | 450.000 |
| SEAT CORDOBA DREAM 1.9D | SS-BD | 1999 | J/E; I/Z; L/D | 1.780.000 |
| VW. GOLF III GTI 3p | VI-O | 1993 | J/E; I/Z; L/D | 1.200.000 |
| VW. GOLF II GTI 3p | M-MS | 1990 | J/E; I/Z; L/D | 600.000 |
| VW. PASSAT GT 16V | SS-AK | 1992 | J/E; I/Z; L/D | 500.000 |
| VW. GOLF III GL 1.9 TDI 3 p | NA-AN | 1995 | J/E; I/Z; L/D | 1.550.000 |

**A/E:** Aire Egokitua **J/E:** Jasogailu elektrikoak **L/D:** Lagundutako direkzioa **AB:** Airbag **I/Z:** Itxidura zentralizatua

**OPEL Analsa**

| | | |
|---|---|---|
| ELGOIBAR | Olaso, 25 | 943 74 40 12 |
| EIBAR | Otaola Etorb., 27 | 943 70 08 41 |
| MENDARO | Plaza Auzoa, z/g | 943 75 50 72 |

**HYUNDAI**
**Mendaro Autoak**

| | | |
|---|---|---|
| DONOSTIA | Zumalakarregi Etorb., 1 | 943 31 22 00 |
| ELGOIBAR | Olaso kalea, 27 | 943 74 32 00 |
| EIBAR | Otaola Etorb., 27 | 943 20 60 00 |
| IRUN | Pinar, 21 | 943 61 02 00 |
| MENDARO | Plaza Auzoa, z/g | 943 75 50 72 |

## MENDARO AUTOAK. Plaza auzoa z/g
## MENDARO Tel. 943 75 50 72 / 608 77 33 98

| MODELOA | MATRIKULA | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **OPEL OMEGA TD** | | **1993** | | **975.000 pta.** |
| **HYUNDAI LANTRA 2.0 Familiarra** | | **1997** | | **1.750.000 pta.** |
| **HYUNDAI ACCENT 1.3** | | **1998** | **5 ate** | **1.000.000 pta.** |
| **PEUGEOT 205 Diesela** | | **1994** | | **700.000 pta.** |
| **OPEL CORSA 1.4 i** | | **1993** | | **600.000 pta.** |
| **HYUNDAI COUPE** | | **1993** | | **800.000 pta.** |




*Garabi zerbitzu iraunkorra*
*Tfnoa. 608-17 78 89*

**ERMUA KARROZERIAK, S.L.**

Zeharkale, 26 300 Postakutxatila
Tfnoa. 943 17 62 66 ERMUA

ROVER GROUP

**RALLYE SPORT**
Anton Beroiz Celaya

*Bigarren eskuko kotxeak baita ere!*

Barrena 32 - 20600 EIBAR - Tel: 943 12 03 09 - Faxa: 943 12 03 09

**ZORKI**

AUTOENDAKO ERREMINTAK, ALDAGAIAK ETA OSAGAIAK

**Etorri eta ikusi zure autorako irratia**

- KENWOOD
- PIONNER
- ALPINE
- JBL

Otaola 7 EIBAR Tel. 943 70 21 31



GorAuto

**KIA GorAuto**

- SEPHIA
- SHUMA
- CLARUS
- SPORTAGE
- JOYCE
- CARNIVAL

*AUKERAKO AUTOAK*

- ✓ 206 XR 75 3p
- ✓ CLIO 1.4 5p
- ✓ IBIZA TDI 3p
- ✓ 406 BREAK STDT
- ✓ EXPERT TD

*gehiago ere baditugu*

ERAMAN KIA BERRI BAT: 1.700.000 baino merkeago!

**GorAuto**
**Karmen 15 EIBAR**
**☎ 943 12 12 74**

**Gidatzeko Karnet Guztiak**

**SOLOZABAL**
autoeskola

- Klase teoriko eta praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teorikoak ikusentzunezkoen abantailak erabilita.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazioarteko agentzia ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

**TORIBIO ETXEBARRIA 5 - 1. Tel. 943 70 23 84**

## Hogei, s.a. (Fiat/Alfa Romeo banatzailea) B. Sarasketa 7
## Eibar Tel. 943 12 10 19 / 943 12 10 00

| Modeloa | Matrikula | Urtea | Ezaugarriak | Prezioa |
|---|---|---|---|---|
| FIAT PUNTO 55 3p. S | | 1999 | | |
| FIAT PUNTO 60 SX 3p | | 1999 | Ekipamendu osoa | |
| ULYSSE TD | | | 7 lagunendakoa, ekipamendu osoa. 6.690 Km. | |
| FIAT PUNTO TD 5p. | | 1999 | | |
| FIAT PUNTO 55 5p. S | | 1999 | 6.250 kilometro. | |
| BMW 520i | | | | |
| BMW 3. seriea | | | Merkea. | |
| FORD COURIER 1.8 Diesela | | | | |
| FORD MONDEO 1.8 | | | | |
| NISSAN PRAIRIE SLX | | | Monobolumena. | |
| FIAT TEMPRA STADIO | | | Kilometro gutxi. | |
| W. PASSAT 2.0 GL. | | | Automatikoa, egoera ezinhobean. | |
| LANCIA DEDRA 1.6 | | | Ekipamendu osoa, prezio ona. | |

**AUTOMOBILAK**

**LAIGOR**
I. Ojanguren 2. Tel: 943 20 64 74
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

**ferca**
T. Anitua 3. Tel: 943 20 18 99
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

**ad**
**Tailer profesionalak**

**garajes garcía**
HONDA
SUZUKI

**Ricardo García**
Bidebarrieta, 39
Tel. 943 20 22 14
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

**Fernando García**
Barrena, 11, Ayra Durex erai.
Tel. 943 12 72 71
Faxa. 943 20 43 04
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

**TAILER MEKANIKOAK**
**VALDI**
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...
Talleres VALDI
Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
**20600 EIBAR** (Gipuzkoa)

**Citroën berria**
*Xsara*
*Zure azkenengo* ametsa



***Zaer Motor***
**Tel. 943 70 70 33**
**Faxa. 943 12 73 42**
**EIBAR**
CITROËN

Autoak aukeran

...eta kitto!, Drogetenitturri, Goibekokale eta Pil-Pilean aldizkarien

# AUTOEN GEHIGARRIA

## FORD KONDIA EIBAR

Otaola hiribidea 22
Tel. 943 20 76 50

| MODELOA | MATRIKULA | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| FORD ESCORT 16V | SS-BB | 1998 | ABS, J/E; I/Z; L/D | |
| FORD KA 1.3i | A-DW | 1999 | J/E; I/Z; L/D | |
| FORD ESCORT 1.8 TD | SS-BB | 1998 | J/E; I/Z; L/D | |
| FIAT BRAVA 1.4 | SS-AW | 1996 | Kilometro gutxi | |
| FORD ESCORT NOMADE TD | BI-CH | 1998 | J/E; I/Z; L/D | |
| CITROEN ZX 1.6i | SS-AW | 1996 | Ekipamendu osoa | |
| FORD FIESTA 1.8 D | BI-CH | 1998 | J/E; I/Z; L/D; llantak | |
| OPEL CORSA 1.2 | SS-AJ | 1990 | Sabai elektrikoa | |
| FORD FIESTA 1.1 | SS-AN | 1992 | | |
| TOYOTA COROLLA 16V | BI-CK | 1998 | Ekipamendu osoa | |
| FORD ESCORT 1.8 | SS-AL | 1991 | | |
| FORD COURIER 1.8 D | SS-AV | 1995 | | |
| FORD ESCORT XRI 16V | SS-BB | 1998 | J/E; I/Z; L/D; llantak; aleroia | |

**A/E:** Aire Egokitua **J/E:** Jasogailu elektrikoak **L/D:** Lagundutako direkzioa **AB:** Airbag **I/Z:** Itxidura zentralizatua

ad GARAJEA Legarre
- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Legarre, 2
Telefono eta Faxa: 943 20 63 71
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

MUÑOA
AUTOMOBILANDAKO PIEZAK
Bidebarrieta, 14, 16
Tfnoa: 943 20 13 17 - 943 20 62 28



Ego Gain, 4 - behea
(San Andres pasealekutik)
EIBAR
Tel. 943 20 34 45
ZEZEN BIDE
AUTO ESKOLA

# Ipuin tailerra

**6. maila A-ko ikasleak**

Gure belarrietara heldu zaigu, 5. Mailakoek ipuin tailer bat antolatu dutela gela barruan euskerako orduetan. Hori dela eta galdera sorta bat egitea erabaki dugu hango zenbait ikasleei. Eginiko galderak, honako hauek dituzue:

***-Zer gauza egiten dituzue***

Ipuinak asmatu.Ipuin desberdinak irudimenaz asmatzen ditugu.

***-Nola egiten dituzue?***

Andereñoak ematen digu material bat. Material hori, gelako txoko batean daukagu antolatuta.Materialeak kodeen bidez, ipuin desberdinen hasiera, korapiloa zein bukaera ematen digu eta guk , jarraipena ematen diogu.

***-Zer pauso jarraitzen duzue?***

Hasiera, korapiloa eta bukaera izan behar ditu, edozein ipuinek bezala. Korapiloan, elkarrizketatxo bat azaldu behar da ere

***-Gustokoa duzue saio hau?***

Batzuentzako bai eta beste batzuentzako ez hain atsegina.

*Ipuinak hasiera, korapiloa eta bukaera izan behar ditu*

***-Zergaitik?***

Idaztea gustokoa dugulako eta momentu honetan gu garelako idazleak.

***-Zer material erabiltzen duzue?***

Arkatza, boligrafoa, borragoma,papera eta ipuinen plantilak. Bakoitzak, bere ipuina bukatzerakoan, kontrol zerrendan apuntatuko du berriro errepika ez dadin.

***-Taldeka ala bakarka egiten duzue?***

Lan hau, bakarka egiten dugu bakoitzaren sormena kanporatzeko.

***-Zaila al da lan hau aurrera eramatea?***

Zaila egiten zaigu aurrera eramatea hizkuntzagatik baina, ipuinak guk asmatzen ditugunez, lana erraztu egiten zaigu.

***-Zer egiten duzue bukatu ondoren?***

Irakasleak, gelako txoko batean tailerreko materialea gordetzen du. Materiale hau sailkatuta egongo da aipatu ditugun kodeen bidez.

Beraz, ikusten duzuen bezala, agian hemendik urte batzuetara, gure herrian idazle famaturen bat aurki dezakegu. Ez ala? Jarraitu horrela eta ekiozue lanari!

# Berdinak gara

**6. maila A-ko ikasleak**

Gai hau gelan eztabaidatu ondoren, denon iritziak kontutan izanda, honako argudio testu hau idatzi dugu.

**A**ipatu nahi dugun gaia emakume eta gizonen arteko desberdintasunei buruzkoa da.

Gure iritziz denok gara berdinak eta ez dugu nahi desberdintasunik izatea, denon artean lanak banatu behar ditugu.

Hasteko denok gara amaren sabeletik jaioak.

Gainera esan beharra dago garaiak aldatu egin direla. Orain emakumeak ere etxetik kanpo lan egiten dutela gizonezkoek bezala.

Beste arrazoi bat da emakumezkoek eta gizonezkoek berdin berdin egin ditzaketela etxeko nahiz enpresetako lanak: lixiba, plantxa, torniloak, karretila jasotzaileak erabili...

Horrelan, denon artean lana banatu ez gero, ez litzateke langabezirik egongo.

Honekin batera lana erdibituko bagenu denok edukiko genuke aisialdirako denbora gehiago.

Beraz, denok berdinak garenez, lanak banatu egin behar dira. Beste hitz batzukin esanda, mundu honetan lanik egiten ez badakigu besteen menpean aurkituko gara.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
tf: 943752150
Faxa: 943752118
SORALUZE

PASCUAL CHURRUCA S.A.
Tornilleria estanpada
Errekalde 21
telef. 943751600 eta 943751604
Faxa 943 752461
20590 SORALUZE

# *Mertxe: "Danondako maitasuna"*

Eguena da,ez da egun txarra kalian jendiakin berba eitteko, gehixenak prisaka dabitz ezetarako be astirik barik,baina nik bost minutu eskaini doskuzen andra bat topau dot, hemen erregetxian.Berau Mertxe Balzola Garai da eta egixa esan lana ikaragarri erreztu dosta, izen be lehenenguan erantzun dotsez galderori.

**Gururu**

**-Pil pileanerako galderatxo batzuk eitten badotsuraz erantzungo dotsezuz?**

Bai, zergaitxik ez!

"Ez da giro inguru honetan, boziña hotsa, jentia hara ta hona, obretako zaratia ta abarra, baiña hainbeste burrundaran artian eskertzekua da behintzat Marimertxeren borondatia...Ia ze kontatzen doskun...)

**-Bihotz barren barrenetik urtendako berba pare bat...**

Danondako maitxasuna

**-Gustauko litzakezu famatua izetia?**

Bai

**-Munduko aberatsena ala ederrena?**

Ederrena, aberatsa ez!

"..Ño! zuzenian harira doia, ez dosta denborarik galdu eraingo ez, di-da!"

**-Zerik barik ezingo zinake bizi?**

Maitxasunik barik.

**-Ez dozu ahaztuko sekula...**

Ezkontzako eguna

**-Hartuko leuke edozeinek zuk dakazun...**

Umoria

**-Ze albidade eukitzia gustauko litzakezu?**

Bertsolaritza

**-Demaseko tontokerixia da...**

Alkarren kontra ibiltia

**-Almodovarrek oskar bat jaso dau oiñ dala gutxi zeinek merezi dau Plaentxian holako premixua?**

Tio Iñaxiok, eitten daben lanagaitxik

("Danok dakigu zeinegaitxik diharduan, baiña beno bere tio Iñaxio de Miguel Alonso dou)

**-Zeini esango zenkixo sekreturik handiña?**

Gizonari

**-Zegaitxik esaten dabe beti platerian geratzen dan azkenengo azeitunia plaentxiarrondako dala?**

Lotsabaiak garalako ez?

**-Trikitrixa ala agarraua?**

Trikitrixa nik!

**-Erromerixia ala oingo bakailaua**

Erromerixia

(Bitxikerixaren bat kontatzeko esan eta ez jako bat be burura etorri ta beno berorren baimenakin bat kontatzera noia.Bera ta bere senarra nobixo nobixa zebitzen sasoi horretan San Andres baileko hamasei lagun elkartu zian ta baitxa ezkondu be Kuadrilako eta bailarako zortzi bikote, ez dao gaizki ee? Domeketan goizeko 6,30etan albakua, mezia, entzun eta etxera juaten zian ganajatekuak eittera atsaldian berriro danak alkartzeko. Zela aldatzen dian gauzak! gaur egun 6,30etan ondiokan etxeratu ezinda ibiltzen gara gaztiok...)



*Mertxe Balzola Garai*

## *"Demaseko tonterixia da alkarren kontra ibiltia"*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora
kutxa fundazioa fundación

KONTSUMO KOOPERATIBA
JANARI
ZEIN
JANTZIAK
TEL: 943751345

# Ezoziko Ama Abesbatzak zuzendari berria du

*Ezoziko Ama abesbatzak zuzendari berria estreinatu du pasa den urtearen amaiaeran 10 urte pasatu eta gero, Soraluzeko Nagore Sanzek lan horri laga eta Silvia Hernandez elgoibartarrak hartu du txanda.*



*Ezoziko Ama Abesbatza Nagore Sanz zuzendaria zenean*

*Ubane Madera*

**25 urtera** doan gaztea da. Txikitatik ekin zion musika ikasteari, piano karrera ateraz. Ogibide moduan, musika landuko zuela argi izanda, horretan jardun du institutua amaitu eta berehala. Bere herriko koruko ("Itxaropena") zuzendari izanez, Plazentziako korua umezurtz geratzen zela jakin, eta hementxe dugu, Ezoziko Amaren gidari pasa den urriaz geroztik.

**Gustora Plazentziako abesbatzarekin?**

Oso. Jende oso jatorra dago Plazentziako abesbatzan eta gainera, lanerako eta ikasteko gogo handia erakusten dute. Gehien-gehien harritu nauena da, baina, Plazentziako abesbatzak biltzen duen jende piloa. Hain herri txikia izanda, benetan harritzekoa! Gainera, denetatik dago: gazteak, zaharrak... Elgoibarren ere ez gara hainbeste!

**Nola ikusten da kanpotik zein barrutik gure abesbatza?**

Ederra da, benetan. Jende asko dagoen tokian hori igartzen da; ahots-tonu ugari daude... Asko aberasten du honek abesbatza. Honetaz gain, esan bezala, abeslariek interes handia dute eta horrek fruituak ematen ditu gero.

Esan behar da, gainera, ahots talde bakoitzak bakarrik lantzen duela dagokion zatia; gero astean birritan entsaiatzen dugu guztiok batera. Datorren urtetik aurrera, astean behin entseitatuko dugu eta

*"lanerako eta ikasteko gogo handia du abesbatzak"*



*Silvia Hernandez*

beste guztia eurek egingo dute. Musika dakien laguntzaile talde bat daukat inguruan eta euren eskuetan laga dut lan hori...Horrela izugarri azkartzen da lana; astean behin edo birritan (ni natorrenean) elkartu, entsegu orokorra egin eta kitto!

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Niri dagokidanez, hemen segitzeko asmoa dut, ez banaute botatzen, behintzat.

Abesbatzari dagokionez, kontzertuetarako programak prestatzen ari gara orain. Abesti zerrenda berria egiten ari gara, nire lanera edo gustuetara moldatzeko. Lehengo abesti batzuk gorde egin ditugu, baina berriak sartzen hasi gara, badakizu, zuzendari bakoitzak bere modua du.

Kanpora irteteko aukerak ere lantzen gabiltza: Leonera joateko asmoa dugu, maiatzean Larrabetzura... Kontzertu gehiago ere baditugu buruan, baina, oraindik datak zehazteko daude. Lehen zegoenarekin segitu eta gauza berriak egingo ditugu.

**Zer gustatuko litzaizuke egitea Plazentziako abesbatzarekin?**

Kanpora joatea. Niretzat garrantzitsua barruan lantzen dena ondoren kanpora ateratzea da, jendeak gure lana ikusteko.

Bai herrian, noski, baina baita herritik kanpora ere. Kanpoan beti ezagutzen duzu gauza eta jende gehiago eta hori da niri gustatzen zaidana.

**Eta Plazentzian zer moduz?**

Ondo. Txarrena da, aparkatzeko oso leku gutxi dagoela. Egia esan, orain hasi naiz herria ezagutzen, beraz... Hala ere, Plazentziatik gustatzen zaidana da, jende asko etortzen dela abesbatza ikustera.

Zerbait gehiago esatea nahi baduzu... Nahiz eta abesbatzan jende piloa egon, nik jende gazte gehiago eskatuko nuke, baita gizonezkoak ere.

Nire ustez, gazte askok zuzenean elizarekin lotzen dute abesbatza eta ez dira ezta ikustera ere etortzen ; baina, begira, ez da horrela. Orain momentuan ez dugu elizako abesti bakar bat ere abesten; ingelesezko abesti asko ditugu, erritmo kubatarrak sartzen ari gara... Jende nagusiari zein gazteari gustatzea da nire nahia, beraz, animo eta etorri!!!

Futbola

# Kadeteak igoera postuko lehen fasean

*Iñaki Alberdi/Bittor Trebiño/Xuban Katalan*

Azken hilabete honetan Rascón-ek entrenatzen dituen mutilak oso emaitza onak lortzen ari dira.

Jokoan zeuden 9 puntuetatik guztiak lortu dituzte eta gainera markagailura begiratuta gol askotxoko partiduak izan dira, azkena 6-1. Ezin dezakegu berdina esan erregional eta jubenil-engatik, biek 3 puntu lortu baitituzte azken bederatzietatik eta gainera gol askotxo jaso dituztelako partidu batzutan 10-0.

Jubenilak Burumendiren aurka eta 1-5 erregionalak Tolosaldearen aurka. Sailkapenean beraien postua obetzeko lan handia egin beharko dute datozen iardunaldietan, bestela beraien atzetik datozen taldeak larregi gerturatuko dira eta kinka larrian ibiliko dira kategoria mantentzeko.



*Soraluze F.T.-ko jubenil taldea*

Judoa

# Jose Luis Nieto urrezko domina Azpeitian

*I. A./B.T./X.K.*

José Luis Nietok, Azpeitin, infantil mailan izandako txapelketan urrezko domina lortu zuen.

Juanra Del Barriok entrenatzen dituen gazteak, benetan emaitza onak lortzen ari direla esan daiteke. Honen adibide, urrezko domina hau dugu; gainera lortutako hau, ez da José Luisek lortzen duen lehenengoa; orain dela gutxi, toki berean, lehen postua lortu baitzuen.

José Luisek aurten beste txapelketa batzutan ere parte hartu du, Soraluzen bigarren atera zuen. Eta Legazpin izandako Gipuzkoako txapelketan hirugarren.

Emaitza hau aipagarriena izan bazen ere, Ukaldi taldeko beste gazte batzuk ere parte hartu zuten Azpeitin eta lortutako emaitzak; honen gisa Jon Lamarianok eta Mikel Hernandezek lortutako zilarrezko dominak izan ziren; brontzezkoak ere dexente lortu zituzten; hauen jabeak Mikel Irisarri, Daniel Santos, Aritz Ramirez, Raul Santos eta Leire Garcia izan genituen.



*José Luis Nieto*

Atletismoa

# Juantxo Euskadiko Maratoi erdian hirugarren



*Juantxo eta Fita Bayesa*

*I. A./B.T./X.K.*

Juantxo, orain dela gutxi, Azkoiti-Azpeiti maratoi erdian euskadiko hirugarren izan zen.

Lehenengoa Asier Cuevas eibartarra izan genuen, Juantxo, honengandik 44 segundutara gelditu zelarik. Lasterketa hau, izen handiko froga dugu eta urtero korrikalarien kopurua gehituz doala ikusten da gainera.

Lasterketa egunean, korrikalariek eguraldi oso ona izan zuten, kontuan izanik aurreko egunak oso txarrak izan zirela. Hotz-beroa 11 gradutakoa izan zen eta frogak iraun zuen bitartean ez zuen euririk egin. Honek, zalantzarik gabe, korrikalariei mesede handia egin zien. Ibilbidea, hasieran, laua izan arren azkenengo kilometroak nahiko aldapatsuak izan ziren, eta konkretuki, lasterketako une honetan aurkitu zen Juantxo ongien; orduan egin zuen Juantxok aurrera, gainera azken kilometroetan Juantxok jendearengandik jasotako txaloak, erabakiorrak izan ziren postu garrantzitsu hau lortzeko ( Juantxo Azkoitiko Iraurgi taldekoa da eta jadanik, erabat ezaguna da bertan ).

Orain, Juantxok atseden txiki bat hartuko du eta egun batzuk barru, berriro ekingo dio korrika egiteari. Egiteko daukan desafioari dagokionez, **Pil-pilean**etik jakin dugu, edozein asteburutan prest egongo litzakela desafioari aurre egiteko. Beraz, erantzuna desafianteek daukate, eta ondorioz datozen egunetan izan dezakegu denok hainbeste espero dugun desafio hori ikusteko aukera.

# *Menisko hausdurak*

Gabonetan hasi eta aste santuak arte, salbuespenak salbuespen, denok izan ohi dugu eskiatzera joateko aukera. Kirol hau egiten dugunean belauna dugu gehien sufritzen duen artikulazioa, beraz bertako lesio bat baino gehiago jasateko arriskua izango dugu, eta are gehiago, bizitza sedentarioa eraman eta urtean behin kirola egiten dutenek. Sarri gertatu ohi den lesioa dugu "menisko hausdurena".

**Onegi**

**B**elauneko meniskoak, bi hezurren artean aurkitzen diren esponja gisako kartilagoak dira. Hauen funtzio nagusienak belaunari egonkortasuna eman eta pisua era egoki batean banatzea dira. Belaunean bi menisko bereiz ditzakegu: barnekaldeko meniskoa eta kanpokaldeko meniskoa.

Hauen hausdura normalean belauna erdi flexionaturik dugula, biraketa bat egitearen ondorio izaten da. Eskiatzean eramaten den posizioa kontuan hartuz gero, ikus dezakegu, belaunak erdi flexionatuak eramaten direla eta erorketa baten ondorioz biraketa ere gertatu daitekeela. Barnekaldeko meniskoa izaten da lesio gehien jasaten dituena. Eta hiru hausdura mota gertatu daitezke:




*Belauneko meniskoa*

## *Hausdura normalean belauna erdi flexionaturik dugula biraketa bat egitearen ondorio izaten da*

Tratamentua, azken urte hauetan asko aurreratu da, lehenago ondorio txarrak eta tratamentu luzea zuen lesio bat, askoz ere eramangarriago bilakatuz. Gaur egunean "artroskopia" bidez, hautsi den zatia kentzen da, hau da, kamara baten bitartez zatia aurkitu eta kanpora atera ( interbenzio hau egin ostean pare bat egunean etxean egon ohi da lesioa izan duen pertsona ). Honen ostean, belauna egonkortzen duten muskuluen indartzea egin behar da,batez ere cuadriceps-a.

## Hausdura motak



*Aurreko adarraren hausdura*



*Erdiko hausdura, "asa de cubo" deiturikoa*



*Atzeko adarraren hausdura*

SAN ANDRES
ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK
TLF: 943751646
RABAL 2 SORALUZE

ETXEBARRI®
*Barra kargadore automatikoak*
*Tuerka roskatzaileak*
*Ranuratzaileak*
*Makina bereziak*
ETXEHUN, S.A.L.
*Estazioa 7, Posta Kutxatila 62*
*Telefonoa(943) 75 18 91*
*Faxa 75 18 91*
20590 SORALUZE - PLACENCIA
**(Gipuzkoa)**

# Bildots errea

*Amaia Agirre*

Apirilak 23 oso egun inportantea da, alde batetik kristauentzat "Pasko eguna" izateagatik, eta bestetik euskaldun guztiontzat, egun honetan ospatzen bait dugu "Aberri eguna".

Askok, egun berezi hau etxetik kanpo pasatzea aukeratuko dugu, beste batzuk berriz etxeko giro lasaiean, baina gehienok, nola ez, euskaldun jatorren legez, jaten ospatuko dugu.

**Pil-Pilean**ekoek hain berezia den egun honetarako, beti ondo datorren plater goxo hau proposatzen dizuegu.



Osagaiak: ( 6 pertsonentzat )

- **Bildots erdia**
- **Ardo zuria**
- **Berakatza**
- **Gatza**
- **Ozpin pixka bat**

*Nola egin:*

Labea 200ºC-tan bero-bero dagoenean, bildotsari gatza bota eta bertan sartuko dugu, ordu edo ordu eta erdi egon beharko delarik gutxigorabehera.

Edalontzi batean, ardo zuria, berakatza zatituta eta ozpin apur bat nahastuko ditugu, eta bilbotsa erre ahala botatzen joango gatzaizkio pixkanaka-pixkanaka.

Ondo erreta dagoela ikusten dugunean jateko prest egongo da.

Lagungarri gisa letxugia oso ondo datorkio.

***Oharra**:* Bildotsa labean dagoela , bere zukua askatzen du, goilare batekin zuku hori bidotsari gainetik bota ahal zaio egiten dagoela ez sikatzeko.

*On egin!!*

## *Udalak eta Pil-Pilean kutur elkarteak maiatza eta ekaina kultur ekintzez jantziko dituzte*

Udalak eta Pil Pileanek elkarrekin, kuntur ekitaldiak antolatuko dituzte maiatzeko eta ekaineko hilabeteetan zehar. Hona zehaztu den kultur egitarau aberatsa:

| | |
|---|---|
| ***Maiatzaren 4 an*** | *IRUDIPUINAK* |
| ***Maiatzaren 19 an*** | *AI BATIX BATIX BERTSO IKUSKIZUNA* |
| ***Maiatzaren 20 eta 27 an*** | *INFORMATIKA IKASTAROA* |
| ***Ekainaren 3 an*** | *KANTU AFARIA* |
| ***Ekainaren 15 ean*** | *PORROTXEKIN MERIENDA* |
| ***Ekainaren 29 an*** | *DIAPOSITIBA EMANALDIA ION ARRETXEREN ESKUTIK* |

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Arauak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.
Estanpaciones LAGA s.a.
Industroaldea
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702
42 postakutxa
20590 Soraluze

JOSETXO Ardangela
PINTXO ETA OTARTEKOETAN
ESPEZIALITATEA.
Atxuri,9 SORALUZE Tlf: 943751571

# *Garai bateko argazkixa*



**Ezoziko Ama Abesbatza herriko jaixetan**

**1960**ko abuztuaren 15ean amabirjinaren egunian etaratako argazki honetan, Ezoziko Ama Abesbatza ikus dezakegu kanturako prest. Garai haietan, Don Anzenzio zuzendarixa zeken, fotografixan azaltzen dana. Erregetxean gogor entsaiatu ostian herrixaren aurrian emoten zittuzten errezitaldixak.

*Aitorrena*



## *LEHIAKETA*

***Zein da argazkixan agiri dan bikote irribarretsu hau?***

*Erantzuna baldin badakizu deittu bildurrik barik gure telefonora, eta zure izen abizenak emon.* ***Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke. Deittu segittuan!!***

***Telefonoa: 943 75 13 04***

***Aurreko lehiaketaren irabazlea***



***Mertxe Eizagirre.***

ARANE
Kiroldegia
Tel: 943752466

SALAZAR
Altzariak
Altzariak-Apaindurak
Sukaldeak- Elektratresnak
Errekalde 7
20590 Soraluze
Telefonoa/faxa:943752388

### JAIOTAKOAK

Miren Quintas Zaldua
2000-3-31

### HILDAKOAK

Celestino Argarate Murua
Maria Rosario Oregi Laskurain

### EZKONDUAK

Edurne Orbea -- Iñaki Soraluze
2000-3-25

***DEITTU 943 75 13 04 ETA LAGA ZURE MEZUA 16 A BAINO LEHEN.***

### TELEFONO INTERESGARRIXAK

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 943 753043 |
| Faxa | 943 753112 |
| Udaltzaingoa | 943 753024 |
| Bake Epaitegia | 943 751989 |
| Arane Kiroldegia | 943 752466 |
| Osasun Etxea | 943 752259 |
| Larrialdiak-Elgoibar | 943 743354 |
| Larrialdiak- Donostia | 943 461111 |
| Zabaleta Botika | 943 751384 |
| Escala Botika | 943 751638 |
| Itxaropena Jubilatuen Etxea | 943 752330 |
| Zaharren Egoitza | 943 751136 |
| Soraluze Kirol Elkartea | 943 751029 |
| Plaentxi Herri Ikastetxea | |
| Haur Hezkuntza | 943 751544 |
| Lehen Hezkuntza | 943 751937 |
| Soraluze DBH Institutoa | 943 752365 |
| Euskaltegia -AEK- | 943 751434 |
| Pil-Pilean Aldizkaria | 943 751304 |
| Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.- | 943 753017 |
| Taxia | 943 751993/ 607 220808 |
| Postetxea | 943 751947 |
| Apaiz Etxea | 943 751370 |
| Ertzaintza –Bergara- | 943 765340 |
| SOS Deiak | 112 |

### ILARGIAREN ALDIAK

**Ilberria**



Maitza 4 osteguna

**Ilgora**



Maiatza 18 Osteguna

**Ilbetea**



Apirilak 18 martitzena.

**Ilbera**



Maiatza 26 Ostirala

### ZORION AGURRAK

***Aimar Bengoa Iribekanpos*** 9 urte
2000-05-12
Zorionak!! Ihart, Tarsi eta amama Felis

***Mikel Juaristi Ariznabarreta*** 8 urte
2000-05-26
Zorionak!! Amama Felisa eta senidiak

***Ane***
2000-04-14
Zorionak!! 6. mailako lagunak

***Gurutze Ariznabarreta*** 29 urte
2000-4-30
Txotximorreo goxo-goxoa zure txotxitaldekide txoroen partez eta ........

***Josu Benito Maiztegi*** 4 urte
2000-4-26 Zorionak!!! Iker, Xuban eta Ugaitzen partez.

***Maria Jesús Arrizabalaga*** 55 urte
2000-4-17 Zorionak eta muxu handi bat zure seme alaben partez

***Oskar Jorge*** 26 urte
2000-5-6 Maitasun haundiz.....
Zorionak!!!

***Arantxa Laskurain Arrizabalaga***
25 urte
2000-4-10 Zorionak!!! Zuk eta biok duguna zer den oso ondo dakizulako, infinitu.........

***Myriam Goenaga eta Ubane Madera***
27 urte
2000-5-20 eta 2000-5-24 Zorionak!!!! Ondo ondo pasa zuen urtebetetzetan, eta txintxoak izan eee... Kuadrilakoak.

### *Oharra*

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.**

**OHARRA**

**Ez bazaizue Pil Pilean aldizkaria etxera heltzen deitu 943 75 13 04 zenbakira eta esan zein den zure zuzenbidea, bestela eskatu Udaltzaingoan eta emango dizute.**

**Gertaera salatu edo txalotzeko : 943 75 13 04. Izen abizena beharrezkoa**

### KEXAK

Apirilaren 15 ean, Pil Pileaneko partaide batek deitu zuen eta honako galdera hau egin zuen: " Nik deittu dot galdetzeko aldizkarixan bittartez, ia Argentinan edo Ameriketan bizi diran plaentxiarren berri badakixan baten batek. Dakixanak deittu deixala, beren zuzenbidia jakin eta herei be aldizkarixa bialtzeko ".

### MEZEN ORDUTEGIA
### ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

**Ostegun Santua: Apirilaren 20a**
Azken Afaria..........................Arratsaldeko 6retan
Ordu Santua............................Gaueko 9retan

**Ostiral Santua: Apirilaren 21a**
Gurutz bidea...........................Goizeko 9retan
Jaunaren nekaldia....................Arratsaldeko 5etan

**Larunbata Santua: Apirilaren 22a**
Bazko Gaubeila........................Gaueko 10etan

**Bazko Jaia: Apirilaren 23a**

**Aitortzak:**
Goizeko 10etan euskeraz
Goizeko 11:30h-etan gazteleraz

**Bataioak: Apirilaren 30a**
Goizeko 12:30h-etan


SANTA ANA JAIXAK 98
GEHIGARRIA
1997ko Iraila
7. Zenbakia
Ibilixan Ibilixan
Bertso Eskola
Haizeak
Soraluzen
eragindakoak
Otsailaren 3 an
San Blas !!
Estreeesatua?
Yoga izan leike bizitza hobeto eramateko bidia
"Eskatu ofiziko ebokatu euskaldunu. Zure eskubidea da" kanpaina martxan
Soraluzeko Euskara Batzordia
Arrate eta Juantxo markak hausten
Herri kontsulta eta hauteskunde orokorren emaitzak
Pil-pil-ean
Alez-ale Soraluze
informatzen


GIORGIO ARMANI
DOLCE & GABBANA Occhiali
CK
arnette
Ray-Ban
GUCCI
eta zu
biluzik?
Ederra janzkia
Merkatuko
marka onenak
zure esku !!!
Ederra soinekoa
MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA
Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA
zatoz
MULTIOPTICAS -era
eta aukeratu
zure janzkera !!!
Scooter 1
DENDA BAKOITZEKO
Zozketa
5.000 PZTAKO EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT
R.P.S. 164/99 zkia.







**Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**